



# NOR osagarririk gabeko zenbait aditz

*DU* erregimenekoak

...bidaiatzen **dute**...  
...eboluzionatu **genuen**...  
...funtzionatzen **du**...



# bidaiatu

- Animalia askok **bidaiatzen du** zerua erreferentzia harturik..

Marc D. Hauser , *Gogo basatiak*, EHU (ZIO bilduma), 2008. Euskaratzailea: Irene Aldasoro.

## OHARRA

'DA' erregimenekoa da **bidaiatu** aditza Iparraldeko zenbait hizkeratan. Erreparatu zer dakarren *Nola erran* frantses-euskara hiztegi elektronikoak [voyager](#) sarreran.



# eboluzionatu

- Guk, ugaztunok, arrautzak erruten zituzten narrasti-arbaso batzuetatik **eboluzionatu genuen.**

Jerry A. Coyne, *Zergatik den egia eboluzioa*, EHU (ZIO bilduma), 2013. Euskaratzailea: Itziar Otegi.



# funtzionatu

- Egun bero batean, edo ariketa gogorra egiten denean, automobilaren irradiagailuak bezala **funtzionatzen du** larruazalak, airera igorriz beroa.

John Lenihan, *Giza gorputza lanean*, EHU (ZIO bilduma), 2006. Euskaratzailea: Irene Aldasoro .

NOR osagarririk gabeak dira, eta DU erregimenekoak, beste hainbat aditz. Hona:

- ABORTATU: Abortuaren Legea indarrean dagoenetik milaka emakumek **abortatu dute**.
- BIBRATU: Beraz, **bibratzen duen** atomo batek izan dezakeen energiari txikiena  $E=hf$  da.
- BOXEATU: Mike Tysonek berriro **boxeatuko du**, dituen zorrak kitatzeko.
- BOZKATU: 60 ordezkari **bozkatu zuten** baietz; 15 aurka agertu ziren.
- DESFILATU: Diktadoreak palioaren azpian **desfilatu zuen** behin baino gehiagotan, tartean Donostiako Aste Nagusian.
- DIMITITU: Lehen ministroak **dimititu du** bozetako emaitza txarrengatik.
- DIRDIRATU: Mila izarrek **dirdiratzten zuten** zeruan eta ur gainean islatzen zen haien itxura.



- ERREAKZIONATU (*Kim.* Erreakzioa izan): Gai kimikoek maila molekularrean nola **erreakzionatzen duten** aztertzeko ere erabil daiteke Schrödinger-en ekuazioa.
- ERRIMATU: ...mitxoleta hitzarekin **errimatzen zuten** hitzen galdezka.
- ESKIATU: Italian **eskiatu zuen** duela pare bat asteburu, iraupen eskiko Munduko Kopako proba batean.
- ESPRINTATU: Zelaiaren ertzetik bi aldiz **esprintatuko zuela** esan zuen.
- FLOTATU: Ura, izoztuz gero, zabaldu egiten da; horrenbestez, izotzak **flotatu egiten du** uretan.
- HIBERNATU: ...marmota alpetarra da **hibernatzen duen** ugaztunik handiena.
- IRAKIN: Ontzian urak **irakiten duenean**, presioa igo egiten da, hau da, uraren tenperaturak irakite puntua gainditzen du



- IRAUN: Menelaok, berriz, agintean **iraun zuen**, handikien diruzalekeriari esker.
- MIGRATU: Lehenik melaninak epidermisera **migratzen du**, eta, gero, berriz, melanina gehiago ekoizten da.
- OBULATU: 40-50 urteko emakumeen obuluteziek, FSH hormonaren mezurik jasotzen ez dutelako edo erantzuten ez dutelako, estrogeno falta izaten dute, ez **dute obulatzen** eta menopausia izaten dute.
- OSZILATU (*Fis.*): ...elektroi laxoek erradiazioarekin harmonikoki **oszilatzen dute**... [moldatua]
- PATINATU: ...jendeak nahiko ongi **patinatzen du**, eroriko gutxi egoten **dira**.
- PLANEATU (hegazkinak, hegaztiak...): Saguzar batek lau lagun berru **gainetik planeatu zuen**.
- ZIATU: ...arraun egiteari utzi nion, baina posizioa mantenduz **korrontearen aurka ziatzen nuela**.



Baita beste hauek ere, Zuzenbidearen alorrean erabiliak. Hona:

- ABDIKATU
- ABUSATU
- DESERTATU
- ERREINATU
- ETSI
- KOTIZATU (burtsan)
- PROTESTATU
- ...



## Adibideen iturriak

- EHUskaratuak [UPV/EHU](#)
- Ereduzko Prosa Gaur (EPG) [UPV/EHU](#)
- Zientzia eta Teknologiaren Corpora (ZTC) [ELHUYAR](#)
- ZIO Corpora [UPV/EHU](#)
- Zuzenbide Corpora (ZCP) [UPV/EHU](#)